

noaua

**“Xua gurasoekin etxera”
ekimenak Udalaren
babesa jaso du**

**Hauteskunde eguna
izango da igandekoa**



**Azaroaren 16an Usurbilen,
Euskal Herriko I. Trikitixa Topaketa**

BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek azaroaren 7an



AZAROAREN BAN. OSTIRALA
Orbeldi dantza taldea
IKUSTEKO
2 SARRERA



AZAROAREN 9AN. LAYUNBATA
IZAKI GARDENAK KONTZERTUA
IKUSTEKO
2 SARRERA



noaua euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara. OPARI eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu
(40€ urtean soilu) 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Opariak eta barruko landareak

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



Usurbilgo Udala

Udal aurrekontuak aurkezteko batzarrak

Parte hartu eta egin zure ekarpena!

Kaxkoan

12

Azaroak
Potxoenean
19:00 asteartea

Kalezarren

13

Azaroak
Haur eskolan
19:00 asteazkena

Zubietan

13

Azaroak
Kaxkapen
19:00 asteazkena

Txokoalden

19

Azaroak
Erroizpe elkarte
19:00 asteartea

Santuenean

19

Azaroak
Auzo elkarte
19:00 asteartea

Aginagan

20

Azaroak
Ludotekan
19:00 asteazkena

Munalurran

20

Azaroak
Eguzki elkarte
19:00 asteazkena

Albiste iruditan

Kaltea Andatzen

Andatzen ikusi duen kaltea iruditan bildu eta helarazi dio NOAUA!ri Xingolak, herriko sare sozialetako erabiltzaileak. “Hau egin duenak ez dauka izenik. Andatza mendian (Usurbil) zenbait tokitan ezin dute motoek eta autoek ibili, baina badirudi horrek baten bati mina egiten diola...”, adierazi du Xingolak sare sozialen bidez. Ez da Andatza aldetik jaso izan dugun gisa honetako lehen kexua.



“Andatza mendian, zenbait tokitan ezin dute motoek eta autoek ibili, baina badirudi horrek baten bati mina egiten diola”, Xingolak sare sozialetan salatu zuenez. Argazkia: Xingola.

Laburrean

1969 kintokoen argazkia eskuratzeko aukera

Urriaren 26an atera zuten argazkia eskuratu nahi duenak, Laurok-era gerturatu dadila azaroaren 20a baino lehen. Abenduaren 3tik aurrera jaso ahalko da argazkia.

Finalaurrekoetan izango da Asier Azpiroz

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa iritsi da finalaurrekoetara. Asier Azpiroz Oiarzungo saioan arituko da: azaroaren 24an, 17:00etatik aurrera, Elorsoro kiroldegian.

Energiari buruzko jardunaldia

Energiaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu herritar talde batek. Azaroaren 8an ostirala, Usurbilgo autohornikuntzaz arituko dira 18:00etan Potxoenean.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaUA.eus ||| www.noaUA.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaUA.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Imanol Ubeda

Igandeko hitzorduaren harira

Uste zabalduena da liburua dela literaturaren aterpe nagusia. Baina, ingurutzen gaituzten euskarrietan bilaketa azkar bat egingo bagenu, elementu poetiko ugari topatuko genituzke. Istant batean. Sare sozialetan, egunkarrietan, kaleko afixetan, fikziozko telesailetan... Kantaren xerka ibili ohi den sortzailearentzat ere, oro da inspirazio iturri.

Literatur txinpartak nonahi agertu ohi zaizkigu. Baita abestietan ere. Askok eta askok baitira literaturtasun maila handia duten kantugileak.

Kantariaren edo artistaren deitura baino, egilearen obra da Jon Basagurenen arreta erakarri ohi duena. Halaxe aitortu zidan orain gutxi, beste hedabide baterako izan genuen solasal-

dian. “Kantak dira hunkitzen nautenak. Artistak baino gehiago. Musika eta hitzaren arteko uztarketa, osotasun hori, kantek bakarrik dute. Hori da gehien erakartzen nauena rock edo pop mundutik”.

Jon Basaguren Euskadi Irratiako esataria izateaz gain, Izaki Gardenak taldeko kantaria da. Abestiak osatzeko garaian, berak ere arreta berezia jartzen du letra bakoitzean. “Lehen doinuan zentratzen nintzen. Baina orain buelta izugarriak ematen dizkiet hitzei. Gero eta gehiago. Disko bakoitzean gero eta garrantzia handiagoa hartu dute hitzek eta akaso beste zerbait sakrifikatu dugu bidean”.

Zaleentzat, euren gustuko kantariak erreferente garrantzitsuak dira, buruz dakizkitez kantetako hitzak. Jon Basa-

gurenen ustez, hori “kanta borobiltzen duen zerbait da; zirkulua ixten du nolabait. Nik sortzen dut beste norbaitengana iristeko helburutxoarekin, bestela gorde egingo nuke dena tiradera batean. Norbaitek Izaki Gardenak-en abestiren bat edo esaldiren bat bere egiten badu, honek guztiak zentzua hartzen duela uste dut”.

Irismena gero eta handiagoa, orduan eta zailagoa da presioari izkin egitea. Jon Basaguren ordea, pizgarria zaio ardura hori. “Aurri gara (2015) diskoarekin jende bategana iristea lortu genuen”. Disko berri bat prestatzeko garaia iritsi zenean, “sentitzen nuen bazegoela jende bat gure disko berri bat entzuteko gogoz. Horrek lanean jarraitzeko indarra ematen

zidan, gauzak hobeto egiteko grina. Entzule batzuk gure disko berria entzuteko gogotsu zeuden eta horrek nire motibazioa handitu egin zuen”.

Aldarte horretan sortu zituena *Dena oskol* (2018) disko-kantak. Eta ez zebilen oker. Izaki Gardenak taldeko zaleak zain zeuzkan. Gogotsu hartu dituzte abesti berriak. Euren zuzenekoak dira horren erakusgarri; gero eta jendetsuagoak baitira.

Izaki Gardenak taldea ez baduzu zuzenean ikusi oraindik, erremedio erraza duzu. Igande honetan Sutegin arituko dira, NOAUA! Kulturaldiaren baitan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da kontzertua. Egungo talde interesgarrietako bat gure artean. Bertatik bertara. Ez zaizu damutuko.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Ika-mika

Kale edo bale?

Gaur egun, egunerokoan ikusten ditugun ehunka irudietatik gutxi batzuk, herri(tarron) oroimenaren parte bilakatzen dira. Azken asteotan, bi irudi geratu zaizkit nire pentsamenduan iltzatuta. Biek, ziur aski, herri honen askatasunaren eta bakearen aldeko bidean eragin garrantzitsua izan dezaketanak.

Bata, Herrialde Katalanetan sufritu behar izan duten eta dugun epaiari emandako erantzun herritar zabal eta irudimentsuak. Azken aldian, Mediterraneoko haizeak eta Kantauri itsasokoak joan etorrian dabilta, elkar bersarkatuz, eta horren lekuko, “Llotja de Mar-eko adieraz-

pena”, BNGk, Herrialde Katalanetako indar guztiek eta EHBilduk hitzartua. Indarrak batuz, biderkatuz, inboluzioaren aurrean gutxieneko agenda demokratizatzaile bat abian jartzeko abiapuntu erdugarria.

Beste argazkiak aurrekoekin lotura zuzena du; egoera horiek sortzearen arrazoi izan daitekeela ere esango nuke. Frankoren deshobiratzearen argazkiez ari naiz, bai. Etorri daitekeen inboluzioaren preludea izan daiteke. Ikusten ari garenez, etengabea, espainiar estatua eta bertako botere nagusiak oinarriko eskubideak urratzen ari dira nola edo hala, 1978ko sasi-trantsizioaren zutabe

nagusi den “espainiar batasuna” krisian dagoela bada-kitelako. Egurra da espainiar estatuaren errezeta bakarra. Ondorioa beraz argia da; larrialdi demokratikoan gaude, espainiar estatuan demokrazia bera baitago krisian.

Eta egoera honek bultzaturik hainbat herritarrok barenak bor-borka ditugularik, “dixosozko” hauteskundeak datoz. Larrialdi demokratikoko egoera iraunkor honen isla ote? Badut ezinetik edota etsipenetik, baina ezina ekinez eginga. Eta hauteskunde hauetan ere, ekitea dagokigu, ondorio garbi batera iristen naizelako behin eta berriz.

Edo argazki bat edo beste. Edo bozkatzeko dugu, eta

agian, aukerak izan genitzake Madrilgo gobernuaren osaketa baldintzatzeko nahiko indar metatu (Llotja de Mar-eko adierazpenaren norabidean) eta gobernu horrek gutxieneko demokratiko baten eskaera zabal bati bide ematen haste-ko. Edota ez dugu bozkatzeko, eta bide librea uzten diogu, autoritarismoari, inboluzioari, frankismoaren arimari eta IBEX-35ari, nahieran gobernu osatu eta gure askatasun demokratiko eta politikoak ere gehiago murrizten jarraitzeko. Autoritarismoa ala demokrazia, alegia; ez dago tartekorik. Nik, eginga dut hautua. Eta zuk, kale edo bale?

Izaieta

“Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenaren mozioa, aho batez onartua

EHBilduk, EAJ-k eta PSE-k aho batez, onartu zuten “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenak urriaren 31ko udalbatzaren osoko bilkuran aurkezturiko mozioa. Gauza bera egin zuten Orioko Udalean ere.

“Oso garrantzitsua iruditzen zitzagun adostasuna bermatzea gai honetan, duen sentsibilitateagatik, eta gainera, hemendik aurrera eman nahi ditugun urratsei begira”, adierazi zuen “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimeneko kideetako batek mozioa aurkezterakoan.

Herri ekimenekoan esanetan, udaletan soilik ez, Gipuzkoako Batzar Nagusietara helaraztekoak dira eskaerok, Eusko Legebiltzarrera ere joan nahi lukete eta bestelako eragileekin hartuemanetan jarri. Aurreko asteko plenoan aurkeztekoak ziren jatorrizko mozioa egokitu zuten, udal ordezkarien erabateko adostasuna bermatzearen. “Gure aurreneko mozioa bai iruditzen zitzaigun zehatzagoa eta gatazkaren ondorioen konponketarako gure ustetan eraginkorragoa izan zitekeela, baina adostasuna bilatzearen bigarren mozio hau aurkezten dizuegu eta zuen babesa eskatzen dugu”, adierazi zieten “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenetik udal talde politikoei, jatorrizko lehen mozioarekin bat egin zutenei eskerrak helaraztearekin batera.

“Espetxe politika berriak garaiko egoera sozialari erantzun behar dio”

Mozioari aho bateko babesa adierazi aurretik, hitza hartzeko aukera izan zuten udal taldeek. PSE-ko ordezkari Patxi Suarezek berak ordezkatzeko duen alderdiaren adierazpena plazaratu zuen. Hasteko, ETA desa-



Mozioa bozkatu ondoren, Xua Gurasoekin Etxera plataformakoek argazki hau atera zuten udal hautetsiekin batera.

MOZIOA

EH Bilduk, EAJ-k eta PSE-k aho batez onartu zuten mozioa. Gauza bera egin zuten Orioko Udalean ere

gertu osteko garai politiko eta sozial berriak espetxe politika berria diseinatu eta aplikatzea eskatzen duela adierazi zuen. “Espetxe politika berriak garaiko egoera sozialari erantzun behar dio”, zioen. Elkarbizitza eta askatasun baloreekin armoniarik handiena bilatuz, pertsonen eskubideen alde ahalik eta gehien egingo duen espetxe politika babestu zuen.

Kartzela zigorrak sorterritik gertuen dauden espetxeetan betetzea bideratu behar duela kartzela politika berriak adierazi zuen, “ez soilik irizpide juridikoak betetzeko”, baita bere esanetan, lagun eta senideei presoan urruntzeak eragiten dizkieten eta justifikaezinak diren ondorio ezkorrek eta arriskuak saihesteko ere. Gogorarazi zuenez, gehiengo politikoa espetxe zigorrak sorterritik eta presoan ingurune sozialek urruntzea saihestearen alde agertu zen.

Garai berri honetan, baldintzapeko askatasuna bezalako neurriak bultzatuko dituen es-

petxe politika berriaz hausnartu eta garatu behar dela uste du PSE-k, beti ere baldintzak betetzen badira eta modu indibidualean. Elkarbizitza politiketan aurrerapausoak ematea ezinbestekoa dela zioen eta horretarako egokitzat jotzen du “indibidualizazio, humanizazio eta egindako minaren aitortza” printzipioen aplikazioa.

“Kalean beharko lukete”

EHBildutik, “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenaren jarraira txalotu zuten, “adostasunaren alde egin duten saiakeragatik”. Xuak, Olatzek eta Patxik egun sufritzen duten sakabana salatuz, “Usurbildik 600 kilometrotara baitaude Valentzian”. Eta aurrekusi zuten, Xuak urtarrilean 3 urte betetzean, “erremediorik jartzen ez bada, banaketa traumatiko baten aurrean aurkitzear gaudete”.

Xuak, Olatzek eta Patxik bizi duten egoera saihestu daitekeela gogorarazi zuen EHBilduk. “Espetxe zigorra ia bere osotasunean bete dute eta hortaz, giza legez eta legez, beraien zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenez, kalean beharko lukete egoera lazgarri hau eragotziz”.

Testuinguru honetan koaliziotik gogorarazi zuten, “Eus-

kal Herrian aipatu dugun moduan, garai politiko berri bat bizi dugu eta gizarteak aldaketa baten aldarria adierazi du. Hortaz, alde guztiei dagokie bide honetan pausoak ematea eta espetxe politikak ere egungo egoerara moldatu beharko luke, gaur plataformak erakutsi duen jarrera eraikitzaile eta malgua adibide hartuta”.

“Xua Gurasoekin Etxera” ekimenak aurkeztutako mozioa

“Usurbilgo Udalbatzarrak Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren eta batez ere urtarrilean hiru urte egitean gurasoengandik bananduko duten euren alaba Xuaren egoera kontuan hartuta, ondorengo mozioa babesten du:

Dagokien autoritateei eskatzea behar dituzten neurriak har ditzatela, legedia kontuan hartuz ahal bezainbeste bermatzeko adin txikikoa eta bere gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna; familiaren batasuna eurek sustraituta dauden ingurune sozialean lagunduz eta adin txikikoaren interes gorena babestuz”.

EH Bildu: “Hauteskunde hauetan autoritarismoaren eta demokraziaren arteko partida jokatzeko da”

Aurreko hauteskunde deialdietako irizpideari jarraiki, Usurbilgo Udalean ordezkariak duten hiru alderdietako (EHBildu, EAJ-PNV, PSE-EE) hautagaiak elkarrizketatu ditugu. Hauek dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan inguruan egin dizkiguten adierazpenak.

NOAUA! Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira azaroaren 10eko hauteskundeetan. Zure alderdiak ordezkariak lortzen badu, zeintzuk izango dira bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Mertxe Aizpurua, EH Bildu. Sei hilabeteko tartean, berriro, hauteskundeetara zerk eraman gaituen azaltzeko, Pedro eta Pablora, Pablo eta Pedroren istorioa kontatu dezakegu. Ados jarri ez ziren Madrilgo bigizonen istorioa, eta euskal herritarrek azaroaren 10ean berriro botoa ematera behartu gaituztena.

Argi utzi zuen Pedro Sanchezek hauteskundeak deitu zituenean: indar subiranistek baldintzaturiko gobernuak ez zuen nahi. Ez du nahi, Espainiako Estatuak bizi duen egiturazko krisia konpontzeko dituen soluzioak kontraerforma antidemokratikoenak direlako. Eta jakina, ekuazio horretan ez gara sartzen independentistak. Estatuak boterearen nahi eta borondatea



Mertxe Aizpurua EH Bildu koalizioko hautagaiak eskaini dizkigu adierazpenak.

MERTXE AIZPURUA

“Nagitasunak jota dagoenari eta abstentziara jotzeko asmoa duenari hauxe bakarrik esango nioke: zuk ematen ez duzun bozka, zuzenean eskuina indartzera doa”

kontraerreforman sakontzea da, eta horretarako alderdi handien arteko Estatu itunak beharrezkoak dira.

Sanchezek eta Estatuak botereak iraganerako bidaia batean sartu nahi gaituzte, gizarte eta herri hobekia eraiki ahal izateko Kataluniak eta Euskal Herriak autodeterminazio eskubide demokratikoa praktikan jartzerik ez dute nahi. Horren guztiaren aurrean, Herrialde Katalanetako, Euskal Herriko eta Galizako subiranis-

ten elkarlana dago, oinarrizko balio demokratikoen defentsarako indar metaketa dago. Hauteskunde hauetan autoritarismoaren eta demokraziaren arteko partida jokatzeko delako.

Euskal gizarteak, konbikzio demokratiko indartsua duten euskal herritarrek argi izan behar dute gauza bat: subiranisten elkarlanak eta indar metaketak bakarrik ekidin dezake Sanchez eskuinaren besoetara erortzea, kontraerforma autoritarioan sakontzeko. Subiranistek baldintzatutako gobernu batek bakarrik egingo du ezinezko eskuinaren eta Estatuak boterearen nahiak eta desioak gauzatzeko.

EH Bilduk demokrazian eta gure herrien autodeterminazio eskubidean oinarritutako adierazpena izenpetu genuen Herrialde Katalanetako, Galizako eta Euskal Herriko sub-

iranistek. Subiranistok izenpetu genuen gutxieneko programa horrek autodeterminazio eskubidearen defentsa, preso politikoen askatasuna aldarrikatzea eta politika sozial aurrerakoiak bultzatzea zehazten du eta hori izango da Madrilera egingo dugun jardunaren ardatza.

Euskal Herria Bildun argi dugu autodeterminazio eskubidea dela gure herriak demokratizatzeko tresna eraginkorrena, are eta gehiago kontuan hartzen badugu Espainiako Estatuak inboluzioan sakontzeko bidea hartu duela.

Hona hemen Madrilera joateko arrazoia, besteak beste, era guztietako injustizietan oinarritzen den Estatuari aurre egiteko. Altsasuko gazteekin egin dutena salatzen eta euskal preso eta errefuxiatuak etxera ekartzeko.

Baita ere Madrilera goaz astehenero biltzen diren pentsiodunekin bat egiteko, miseriazko soldatekin bizi direnei begiratzen diegulako, gure gazteen etorkizuna bermatuko duen herri bat nahi dugulako eta emakumeon eskubideak errespetatzen dituen herri aurrerakoi eta honestoa nahi dugulako. Herri libre bat nahi dugulako, euskaldun bezala irauteko munduaren aurrean, eta guztiok baldintza duinetan bizi ahal izango garen herri baten alde ekingo dugulako.

“Hitza betetzen dugulako, balio ziurra gara”

NOAUA! Politikariak akordioetara iristeko gai ez direlako, jende asko haserre dago. Botoa emateko zalantzan dagoenari, zer esango zenioke?

Mertxe Aizpurua, EH Bildu. Horregatik guztiagatik da beha-

rezkoa EH Bilduren aldeko bozka. Herri honek aurrera egin dezan gero eta gehiago izan behar garela.

Eta zalantzak edo nagitasunak jota dagoenari eta abstentziara jotzeko asmoa duena-

ri hauxe bakarrik esango nioke: zuk ematen ez duzun bozka, zuzenean eskuina indartzera doa. Bi aldiz pentsatzeko eskatuko nioke, azken arrazoi bat ere badudalako: EH Bilduk defendatzen duena, beste inork

ez duelako defendatuko.

Gainera, hitza betetzen dugulako, balio ziurra gara. Hona hemen azken arrazoia eragin handia izan dezakeen esfortzu txikia igande honetan egiteko.

EAJ-PNV: “Talde indartsu bat behar da, negoziazio eta elkarrizketa bidez akordioak lortu ahal izateko”

NOAUA! Espainiako Gortee-tako ordezkariak aukeratu behar dira azaroaren 10eko hauteskundeetan. Zure alderdiak ordezkariak lortzen badu, zeintzuk izango dira bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Maribel Vaquero, EAJ-PNV. Lehenik eta behin esan, EAJren egiteko nagusia Madrilen Euskadiren eta euskal herritarren borondatea eta beharrak defendatzea dela. Euskadi da gure helburua.

Gure egiteko nagusiak, Madrilen, hauteskunde programan diogun bezala, 10 puntuetan laburtu ditugu: gure autogobernua eta Ekonomia Ituna defendatzea, olatu zentratzaileari aurre eginez, eta Euskadiren naziotasunaren aitortza eta subiranotasun partekatua gauzatzuz; Askatasunak eta Giza Eskubideak defendatu, Sekretu Ofizialen legea, “Mozal” legea eta asilo eta babes politika aldatu; gizarte politika bultzatu, gizarte kohesioa bermatu, desberdintasun egoerak ekiditeko, Euskadin egiten dugun bezala; Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa arloko eskumenak Euskadira eskualdatzea eskatuko dugu berriro. Besteak beste, Pentsioetan, 2018 eta 2019rako EAJK lortutako igoe-
ra orokorraren ildotik, bizisa-



Maribel Vaquero EAJ-PNVren Senaturako hautagaiak erantzun ditu NOAUAiren galderak.

MARIBEL VAQUERO

“EAJren egiteko nagusia Madrilen Euskadiren eta euskal herritarren borondatea eta beharrak defendatzea da. Euskadi da gure helburua”

riak KPIaren arabera izateko lan egingo dugu; emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bultzatuko dugu emakumeek jasaten dugun indarkeria matxistaren kontrako

neurriekin. Emakumeen eta gizonen arteko soldata desoreka desagerrarazteko lan egingo dugu ere; klimaren aldaketaren erronkari helduko diogu, energiaren iraunkortasuna bultzatuz, besteak beste, ekonomia zirkularra bultzatzea, energia berriztagarrien sustatzea, oraingo energia zergen erreforma osoa bultzatzea eta zerga sistema berdea bultzatzea eta garraio publiko iraunkorra izango dira gure jardueraren ildoetako batzuk; euskal azpiegituren inguruan hitz-eman diren akordioak

betetzea exijituko dugu, hala nola, AHT eta aireportuak; industriaren eta berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egiten jarraituko dugu, ekonomiaren oinarri baitira; ekonomiaren eta aurrekontuaren egonkortasuna ahalbidetzeko lana egingo dugu, hazkunde ekonomiko eta sozial iraunkorra bermatu ahal izateko; eta azkenik, guzti horretarako, talde indartsu bat behar da, negoziazio eta elkarrizketa bidez Euskadirentzako mesedegarriak diren akordioak lortu ahal izateko.

“Euskaldunen eskubideak defendatu behar ditugu Madrilen”

NOAUA! Politikariak akordioetara iristeko gai ez direlako, jende asko haserre dago. Botoa emateko zalantzan dagoenari, zer esango zenioke?

Maribel Vaquero, EAJ-PNV. Uler-tzekoa da herritarren haserre-a. PSOEek Estatuan botoetan ja-

sotako konfiantzari huts egin dio, gobernu progresista hori martxan jartzeko nahiko boto izan baitzuen eta uko egin dio ardura politikoari. Guk ez dugu politika modu intermitentean eta interes partidista eta pertsonalen arabera ulertzen.

Konfiantza eskatu eta lortu egiten duenak, herritarrekiko ardura hartzen du eta gauzatu behar du. Haserre hori guztia erantzun aktibo bihurtu behar dugu. Boto aktiboa, konpromisoa hartzen duen alderdiari emanez. EAJ, konpromisoa

hartzen duen alderdi politikoa da. Beti egin dugu eta etorkizunean ere egingo dugu. Garai latzak datoz eta erronka handiak ditugu aurrean. Gure herriaren eta euskaldunen eskubideak defendatu behar ditugu Madrilen.

PSE-EE: “Blokeoa hautsi eta gobernu progresista eta egonkor bat eratu behar dugu lehenbailehen”

NOAUA! Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira azaroaren 10eko hauteskundeetan. Zure alderdiak ordezkariarik lortzen badu, zeintzuk izango dira bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

M^a Luisa García Gurrutzaga, PSE-EE. Euskal sozialistak eta noski Gipuzkoakoak garbi dugu, bitzitzen ari garen blokeo politiko honetan azaroaren 10ean ospatuko diren hauteskundeek duten garrantziaz.

Hauteskunde hauetan ez dago bakarrik jokoan datorren legealdirako gehiengo progresista edo eskubi atzerakoen gehiengo baten eraketa; azaroaren 10eko emaitzen baitan ere gizarteak lorturiko zenbait aldarrikapen, hobekuntzak eta eskubideak arriskuan daudela garbi daukagu, eta hori dela eta gure gizartearen bilakaera hurrengo hamarkadeetan zeharo baldintzatu ditzakete.

Beraz ez dira bestelako hauteskundeak, inkesten arabera VOXen igoera posiblea eta PP eta Ciudadanosekin egindako akordioak Gobernu sozialista eta progresista kanporatzeko, erakusten du mehatxua inoiz baino errealagoa dela eta badagoela arriskua gobernu eta presidente atzerakoi, matxista, homofobo eta xenofobo bate-



M^a Luisa García Gurrutzaga PSE-EEko Espainiako Gorteetarako bigarren hautagai gipuzkoarrak atenditu du NOAUA!ren deia.

M. LUISA GARCIA

“Azaroaren 11n 350 kongresukide egongo dira guk bozkatuta ala ez, horretaz pentsatzea eskatuko nieke zalantzan daudenei”

kin aurkitzeko. Beraz, blokeoa apurtzeko eta eskubiaren arriskua saihesteko aukera bakarra alderdi sozialistan datza, baita Euskadin ere.

Guk jada jakitera eman dugu zein izango den gure agenda hurrengo legealdirako, ez “euskal agenda”, edo “espainiar agenda”, beste batzuk aldarrikatzen duten bezala,

hiritarren agenda baizik, euskal hiritarrena barne. Agenda horrek ehunka neurri edota proposamen jasotzen ditu: hezkuntza, zientzia, ikerketa eta berrikuntza teknologikoa, ekonomia, gizarte ongizatea, kultura, transizio ekologikoa, feminismoa eta berdintasuna, eskubideak eta libertadeak, lan duina, pentsioak eta gehiago.

Beraz guk ez dugu asistentzialismoan sinisten, eskubiko alderdiek bezala, baita hementxo ere, guk eskubideetan sinisten dugu; hiritar, pertsona guztiok lortu ditugun eskubideak indartu eta gizarte berriari agertzen ari diren erroka berriak direla eta garapen be-

riak sustatu behar ditugu.

Horretarako blokeoa hautsi eta gobernu progresista eta egonkor bat lehenbailehen eratu behar dugu, gobernu horrek lidergo demokratiko sendoa eta akordioetara iristeko ahalmena behar du, aurrean ditugun erronkei aurre egiteko. Alderdi sozialistak badu bokazio eta ahalmen hori eta soberan erakutsi du Euskadi mailan ere. Alderdi sozialistak gobernatzeko borondatea, ekipoak eta lurralde guztietan presentzia ditu eta hau da behar dena gure erakundeak eta zerbitzu publikoak sustatzeko, denon arteko elkarbizitza positiboa lortzeko, beti ere gure gizartearen dagoen aniztasuna errekonozituz eta aldarrikatuz.

Galdera honekin amaitzeko, balore demokratikoak, gertatutakoaren memorian oinarritzen den bizikidetzaren, Euskadi mailan gure autogobernua ere kolokan egon daitezkeela azpimarratu nahiko nuke eskubiko aliantza hirukoitzak gobernua eratzea lortuko balu. Guk gure aldetik, elkarrizketarako, deszentralizaziorako, aurre-erapen sozialak garatzeko eta irimotasun demokratikorako borondatea jarri nahi dugu hiritarren zerbitzura.

“Akordioetara iristeko denok jarri behar dugu borondatea”

NOAUA! Politikariak akordioetara iristeko gai ez direlako, jende asko haserre dago. Botoa emateko zalantzan dagoenari, zer esango zenioke?

M^a Luisa García Gurrutzaga, PSE-EE. Jendearen ustekabea eta batzuen haserre ere ulertzekoak badira ere, horrek ez gaituela inora eramaten garbi esan nahi dugu.

Akordioetara iristeko denok izan behar dugu borondatea, alderdi guztiak egon behar dira prest bata besteari entzuteko,

besteek dituzten ideia eta proposamen onak errekonozitzen eta aitortzen eta horrela itunaren eta konfidantzaren oinarriak jarri.

Hori ez da horrela izan, berehala hasi ginen blokeoaren seinaleak ikusten: mesfidantza, deskalifikazioak eta abarrek, eta honek eraman gintuen uztaile-ra, non garbi ikusi genuen alde batetik, Unidas Podemosen jarrera mespretxatzailea alderdi sozialistak egindako koalizio proposamenari, eta beste alde-

tik, PP eta Ciudadanos, estatu alderdi autoproklamatu hauen jarrera ezkorra eta zenbait momentuetan ofentsiboa ere.

Honek guztiak ekarri gaitu hona eta gure aldetik esan beharra dugu asko sentitzen dugula egoera hau, guk ez genuen nahi, irabazi genuen apirilean, beraz hori ez genuen arriskuan jarri nahi.


Bukatzeko, zalantzan dagoenari esango diot eskubira bozkatzen duten hiritarrak ez daudela zalantzan, garbi du-

tela hau dela bere aukera eta zerbakiak ematen badiete gobernatzeko elkartuko direla. Azaroaren 11n 350 kongresukide egongo dira guk bozkatuta ala ez, horretaz pentsatzea eskatuko nieke zalantzan daudenei.

Oraingo honetan alderdi sozialistarentzako gehiengo zabal bat eskatzen dugu, denok behar dugu, hiru alderdi eskuindar atzerakoi eta zentralisten aurrean tinko egoteko.

afari maridatua

Euskal
Sagardoa
eta bertako
produktuekin



Andazpe Elkarte
azaroaren **12an** · 20:30 ean

Usurbil

Afari txartelak salgai Noaua-n (20€-an)

Mundu bat batuko da larunbatean Usurbilen

Nikaraguan jaioa, etorkizun oparoago baten bila abiaturiko bidaiak urrundu zuen Karina Centeno bere sorterritik. Alemanian hilabete egin ostean, duela 12 urte heldu zen Euskal Herrira, Iruñeara. Usurbilen daramatza 6 urte, zoriotsu aipatu digunez. Larunbateko Mundualdia jaialdian bere sorterria aurkeztuko digun herrikideetako bat izango da.



Larunbateko Mundualdia jaialdian bere sorterria aurkeztuko digun herrikideetako bat izango da Karina Centeno.

NOAUA! Zergatik hasi zinen Mundualdian parte hartzen?

Karina Centeno. Senideek animatu ninduten. Aberasgarria da herriarentzat, norbere herriko kulturaren parte diren jakiak erakustea, zure sorterria ezagutzera ematen ari zara. Garrantzitsua da nork bere ahotsetik nor den, nongoa, zer sukaldatzen ari garen azaltzea. Baita halako jai bat izatea eta herri kideen arteko elkarbizitza sustatzea.

Mundualdiko zure postua hurbilduko direnei, nola aurkeztuko zenieke zure sorterria?

Nikaragua aberatsa da natur baliabideetan eta baita jendarrete aldetik ere. Oso abegikorak

KARINA CENTENO

“Nikaraguan abegikorak gara datozenekin eta hala sentitu naiz hemen”

gara bertara heltzen direneko, maitakorrak, oso alaiak eta solidarioak. Borroka asko egin behar izan dugunez, txarra ontasunean eraldatzeko gai gara. Gure elikaduraren oinarri dira babarrunak, arroza eta artoa.

Larunbatean zergatik murgildu beharko genuke Mundualdian?

Usurbildar guztiak gerturatu daitezela Mundualdira, herri

ezberdinetako pertsonak eskaintzen ariko garen jakien dastaketara. Hartara, hartue man gehiago izan dezagun, eta ezagutu dadila hemen bizi garenak nortzuk garen. Arratsalde atsegin bat bizi dezagula.

Usurbilen zer nolako harrera egin zaizula sentitu duzu?

Nikaraguan abegikorak gara datozenekin eta hala sentitu naiz hemen. Inoiz ez dut arrazagatiko diskriminaziorik sentitu. Herrikide bat gehiago bezala sentitu naiz. Oso ondo moldatu naiz jendearekin. Hemen herri askotako jendea bizi dela konturatu naiz eta harre-

ra ona egiten dela. Gogorra da norbere herritik joan beharra, lagunarteko erosotasun horretatik deserriratu beharra. Giza-kiok badugu egokitzeko gaitasuna halere eta aurrera egiten da. Orain sorterriko lagunekin eta hemengo jendearekin dut harremana, gauza handia da. Halere herri honi lotuagoa nago gaur egun, nahiz hara gustuko dudana bidaiatzea.

Zaila egin zaizu bizimodu aldaketa?

Erizaina naiz. Kimika eta farmazia ikasketak egin nituen Nikaraguan eta farmazia batean lan egiten nuen. Hona lanera etorri nintzen. Gure herritik ateratzera behartuak sentitzen gara hain zuzen, dugu gobernu motagatik, ez dugulako soldata duin bat. Nire titulazioa ekarri nuen, baina burokrazia leku guztietan existitzen da. Bulego batera joan eta beste batera bidaltzen ninduten. Ez nuen denborarik lanean ibilita. Hemen internan moduan lan egin dut 6 urteotan, herrian bertan. Baina oso ondo. Lan aldaketak aldaketa, lanak edozein izanda ere pertsona duintzen duela diot beti.

“Ondo legoke denok elkarte batean batzea”

NOAUA! Mundualdia ospatuko dugu larunbatean. Helburuetako bat usurbildarren arteko hartuemanak sendotzea da. Horretan zer eginga badugu ezta?

Karina Centeno. Bai eta ez bakarrik Mundualdian. Sorterrri ezberdinetako herritarrak daude Usurbilen. Ondo legoke denok elkarte batean batzea, gure artean integratzeko, elkar laguntzeko, zer behar ditugun ikusteko eta dauden hainbat errealitate ulertzeko. Nikaraguan banka moduko bat genuen elkar laguntzeko. Lan

egin nahi duenari bidea erraztu beharko litzaioke, hainbeste burokraziarik gabe. Bestalde, ikastea gustuko dut. Euskara ikastea garrantzitsua iruditzen zait, bertako hizkuntza ikasteak bizi zaren lekuko parte sentiarazten baitzaitu. Horretarako, garrantzitsua da aukera hori ematea, erraztasunak, herriaren parte sentiaraztea.

Kontuan hartua izatea.

Edonora bizitzera zoazela, erakundeek ez dute bakarrik laguntzeko izan behar. Alternatiba eskaintza egotea

kanpokoentzat. Hobeto azaltzea zer aukera ditugun, gu ere erabilgarriagoak izan gaitzen. Beti diot, parasitoak ez ditut ezta sabelean izan nahi. Baliagarriak sentitu nahi dugu herrian.

Mundualdia

Azaroak 7, osteguna

■ 19:00 Jon Maiaren hitzaldia
Sutegin: “Extremaduratik bertolaritzara: integrazio istorio bat”.

Azaroak 9, larunbata

Frontoian:

■ 17:30 Zirimararen familia plana Mikel Laboa plazan: herri kirolak haur eta gurasoentzat. Ekimen irekia, ez dago izena eman beharrik.

■ 18:00 Alkatearen agurra.

■ 18:10 Zirimara taldearen eta Orbeldi Dantza Taldearen munduko dantzen emanaldia. Zirimarako haurrek gurasoei dantzak irakatsiko dizkiete.

■ 19:00 Jakien dastaketa.

■ 20:30 Hezurbeltzak Jon Maiaren folk taldearen kontzertua.

■ Antolatzailea: herritar talde bat eta Usurbilgo Udala.

“Zuek bezalako odol emailei esker bizi dira asko”

Eskualdeko odol emaileek urteko jai handia ospatu zuten urriaren 27an Urnietako Oianumen. Dominak eta ikurrak banatu ziren urtean zehar kopuru jakin batera iritsi diren emaileen artean.

Usurbilgo odol emaileen delegaritzari egokitu zaio ekitaldia antolatzea aurten. Orbeldi Dantza Taldekoen emanaldia-ekin hasi zen festa. Agurtzane Solaberrieta alkateak hitza hartu zuen ondoren.

“Eskerrik asko zuei, hainbeste emateagatik”

Odol emaile guztiei eskerrak emanez eta aitortza eginez ekin zion hitzaldiari: “Eskerrak zuei, hainbeste emateagatik. Zuek bezalako odol emaileengatik bizi baitira asko, edo bizi gaitezke asko. Izan ere, nork daki gutako bakoitzak zer patu daukagun, edo nolakoa izango dugun biharko eguna. Nik oso gustukoa dut Eduardo Galeano idazle uruguaiarraren honako esaldi hau: *jende txiki asko, leku txikietan, gauza txikiak eginez mundua alda dezakete*. Nirekin daraman lelo horietakoa da, nire bizi jardun eta bizi politikoa zipriztintzen



Buruntzaldeko odol emaileen egun handia ospatu zuten urriaren 27an.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Seguru nago mundu honetan ez dagoela hau baino ekintza solidarioagorik eta eraginkorragorik”

duen filosofia eta praxia. Zuek, odol emaileek, horixe bera egiten duzue. Seguru nago, mundu honetan ez dagoela hau baino ekintza solidarioagorik, eta gainera, eraginkorragorik. Irakurri dudanez, odol emate bakoitza, hiru bizitza gehiago dira”.

Dominak eta ikurrak

Hitz horiek entzunda, ekitaldiaren muinera jo zuten: esker oneko dominak eta ikur berezien banaketa, odol emate

kopuru jakin batera iritsi diren odol emaileen artean. Banaketa amaituta, tradiziozko familia-argazkia atera, eta bazkaritara joan ziren ekitaldira gerturatu ziren odol emaile guztiak.

Oria Behea eskualdeko odol emaileen elkarteek urtero antolatzen duten topaketan, 25, 40, 50, 75 eta 100 aldiz odola eman duten herritarrak omendu zituen hilaren 27an Urnietan, hain zuzen, Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak antolatutako hitzorduan. Tartean, 100 aldiz odola ematera heldu diren herritarrak.

Oria Beheko eskualdeko odol emaileak omendu zituzten igandean Urnietako Oianumen jatetxeko bazkarian. Urtero herri bakoitzari egokitzen

zaio ekitaldia antolatzea. Aurten Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteari zegokion. Omenduen artean usurbildarrak ziren noski. Bertaratu ziren usurbildarren argazkia duzue albiste honi atxikia merezitako oroigarriekin.

Odola 25 aldiz eman dutenak:

Xabier Iribar Zapirain, Francisco Ramon Pagola Goldaracena, Antton Pagola Goldaracena, Joseba Undiano Korta, Iñigo Villafila Eizagirre.

Odola 40 aldiz eman duten emakumeak:

Lourdes Azanzastroke Maioz, Koro Azkue Mendizabal eta M. Soledad Unanue Izagirre.

Odola 50 aldiz eman duten gizonezkoak:

Iñaki Rekondo Etxeberria-Bereiarza.

Odola 75 aldiz eman duten gizonezkoak:

Juan M. Etxeberria Yarza.

Odola 100 aldiz odola eman duten gizonezkoak:

Jose Mari Argote Aizpurua, Manuel Begiristain Azurmen-
di.

Harria Hitz, Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoarekin

Herriko kultur altxorak eza-gutzeko bisita gidatu berezia azaroan ere, Usurbilgo Udalen eta Ereiten Kultur Zerbitzuak-en eskutik. Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoa gonbidatu dute Harria Hitz ekimenera. “Bere ikerketa nagusiak Gipuzkoako, eta bereziki, Oriaren ibai-arroko ondare industrialaren ardatz duen arren, oraingoan bere ezagutzaren bitartez 60ko hamarkadara bidaiara (eta gogoeta) proposatuko digu”, antola-

zaileen esanetan.

Azaroak 23, larunbata

■ 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.

■ 10:05 Harria hitz bisita gidatua herrigunean. Gidaria: Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoa.

■ 11:00 Amaiera.

Informazio gehiago

eta erreserbak: harriahitz.eus
688 818 017
info@kultour.pro

Jakoba Errekondoren liburu berriaren aurkezpena

Errekondok Argia aldizkarian landareei buruz idatzitako 1.111 artikuluetatik 111 hautatu eta bilduma osatu dute 22 pertsonaia esanguratsuek. Tartean dira, Andu Lertxundi, Maialen Lujanbio, Harkaitz Cano, Itxaro Borda edota Amets Arzallus.

Azaroaren 23an, Duzunaritzen

“11 hostoz eta orriz jantzia” liburuaren aurkezpena eta txangoa antolatu dute EHKOLEKTIBOAK, Biharko Lurraren Elkarteak eta Argiak, azaroaren

23an Duzunaritzera (Nafarroa Behea): Idiertia etxaldekik ibilbide gidatua Jakoba Errekondorekin, Idiertia etxaldean bisita eta bazkaria, eta bazkalostean Errekondoren liburu aurkezpena. Gainera, Sustrai Colina, Itxaro Borda, Ibon RG eta Pantxika Maitiaren emanaldia iragarri dute. Egunpasaren prezioa 20 euro.

Izena emateko:

argiak100urte@argia.eus
616 79 62 84.

“Gurea bada modu batean berritzailea, baina nik beti esaten dut dena asmatuta dagoela”

Huntza taldeko trikitilaria eta abeslaria da Josune Arakistain. Taldea arrakastatsu egin zen duela hiru bat urte, eta euskal musikari lekua egin du. Gazteei zuzendutako hitzaldia eskainiko du asteartean Sutegin. Ibilbide pertsonala, Huntza taldearen bilakaera eta horretan guztian euskarak duen garrantziaz mintzatuko da NOAUA! antolatutako Kulturaldiaren baitan.



Azaroaren 12an asteartearekin izango da Sutegin. Hitzaldi musikatu arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

NOAUA! Astearteko hitzaldian Huntza eta zure ibilbide pertsonala izango dituzu hizpide. Zu trikitilaria zara. Noiz eta norekin hasi zinen trikitixa ikasten?

Josune Arakistain: Nik uste dut trikitixa mundua gustatzen hasi zitzaidala trikitixa bera jotzen hasi aurretik. 9 bat urterekin hasi nintzen instrumentua jotzen, baina lehenago ere joaten nintzen trikitixa txapelketak ikustera eta. Trikitixa oso presente zegoen nire bizitzan. Behin instrumentua jotzen hasi nintzen, eta gaurdaino jarraitu dut.

Nola definituko zenituzke azken urte hauek arrakastara iritsi bitarte?

Nik uste trikitilari moduan fase desberdinak izan ditudala. Ikasle fasea lehenik, txapelketa fasea ondoren, eta azkenik Huntzaren fasea. Hiru fase nagusi horiekin definituko nuke nire trikitilari ibilbidea.

Horrelako talde bat sortzeko talderen batean edo inspirazioa aurkitu zenuten?

Aurretik talde asko egon dira trikitixa bikote tradizional horretatik at. Binakakoan aritu beharrean, taldeak osatuta: Etxakit edo Gose, adibidez. Trikitixa ez da modu tradizional

JOSUNE ARAKISTAIN
“Taldekideak musika estilo ezberdinetatik gatoz, eta nahasketa horretatik jaio zen Huntza”

batean erakusten. Gurea bada modu batean berritzailea, baina nik beti esaten dut dena asmatuta dagoela. Zerbait berri eta biolina sartu dugu taldean, baina ez dut uste ezer berria denik. Inspirazioa nik uste Euskal Herriko eta kanpoko panorama musikaletik hartu dugula orokorrean, taldeki-

deok ere oso musika estilo ezberdinetatik gatoz, eta horien arteko nahasketatik jaio zen Huntza.

Zure hitzaldia NOAUA! Kulturaldiaren barnean izango da, eta euskaraz du ardatz. Zuek ere euskaraz egiten duzue musika. Zuen ardatzetako bat dela esango zenuke?

Taldekide guztiok, bai entseguetan, bai agertokitik kanpo, bai bidaietan dena euskaraz egiten dugu. Gure komunikazioa euskaraz da. Denok oso euskaldunak gara bai familian eta baita lagunartean ere. Nik

uste zerbait natural bezala ateratzen zaigula euskaraz abeste hori. Gaztelera erabili dezakegu hemendik urte batzuetara, edo ez. Momentuaren arabera erabaki beharko da hori. Euskararekin gustura gaude eta oso modu naturalean ateratzen zaigu, eta horrekin dihardugu.

NOAUA! 2017ko otsailean Usurbilen jo zenuten. Orduan hasi zen taldea ezagun egiten. Zer nolako harrera egin zizueten usurbildarrek orduan?

Josune Arakistain: Huntzak lotura handia du Usurbilekin eta inguruekin. Nire lehen trikitixa txapelketa Zubietan izan zen, eta betidanik zerbait berezia izan dut inguru horrekin. Irabazi egin nuen gainera, eta maitasun handia diot. Gure diskoak ere Usurbilen grabatu ditugu Haritz Harreguyren estudioan. Beraz, lotura oso estua daukagu. Goizetan grabatu eta herrian ibiltzen ginen bazkalorduan. Usurbilen emandako kontzertuaz ere gogoratzen naiz, hasierako kontzertu horietako bat izan zen. Boom hori jada emanda zegoen, baina oso hasieran izan zen.

Ipuin kontalarien txanda udal liburutegian

Urriaren 23ko Liburutegiaren Nazioarteko Egunaren harira, Sutegiko liburu arteko aulki eta mahaien bueltan, txoko ezberdinak girotu zituen antolatu zuten ekimen asteak.

Ekitaldiz beteriko egunok igarota, ziklo berri baten atarian da Sutegi. Ipuin kontalarien hiru saio programatu dituzte abiatu berri dugun azarora begira:

Ipuin kontalarien zikloa
Azaroak 13, asteazkena

■ 18:00 Lur Usabiagaren saioa HH4-koentzat.

Azaroak 20, asteazkena

■ 18:00 Pello Añorgaren saioa HH5-ekoentzat.

Azaroak 27, asteazkena

■ 18:00 Ana Galarragaren saioa 6 urtetik gorakoentzat. Zientzia oinarri dituzten kontakizun bitxiak eta esperimen-



Xabier Olaso Sutegin izan zen urriaren 22an.

tu bitxiak izango ditugu”. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

EUSKARALDIAREN IKERKETA "USURBILGO EMAITZEN AURKEZPENA"

azaroak 6, **ASTEAZKENA**, 18:00 Potxoenean **DOAN**

POESIA ERREZITALDIA "Ugaitz Agirre-ren poesia"
azaroak 15, **OSTIRALA**, 19:30 Sutegi **DOAN**

DANTZA "ORBEL JAUZIA emanaldia" Orbeldi Dantza Taldea

azaroak 8, **OSTIRALA**, 19:30 Sutegi **SARRERAK***

ANTZERKIA "Tabernaria"

azaroak 16, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi **SARRERAK***

KALEJIRA-BERTSO BAZKARIA "Maialen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariekin"

azaroak 9, **LARUNBATA**, 12:30 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA***

PELIKULA "AGUR ETXEBESTE"

azaroak 17, **IGANDEA**, 19:30 Sutegi **SARRERAK***

KONTZERTUA "IZAKI GARDENAK"

azaroak 10, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAK***

SOLASALDIA "Josune Arakistain, Huntza taldeko abeslaria"

azaroak 12, **ASTEARTEA**, 19:30 Sutegi **DOAN**

*SARRERAK: Aldez aurretik Bordaxon, Txirristan, Lizardin eta Noaualto egoitzen. Noaualto bazbideek prezio berezian Noaualto egoitzen aldez aurretik.

*BAZKARI-TXARTELA: Bordaxon, Noaualtin eta Aitzrogan salgai soilik.



NOAUA!KO KULTURALDIA 2019

USURBIL AZAROA



noa

Euskal Herriko trikiti zaletasuna kalejiran eta mahaiaren bueltan

Euskal Herri osoko trikiti zaletuentzako topaketa ari dira prestatzen Usurbilen azaroaren 16rako. Xehetasunak biltzeko, Ane Azkonobieta eta Beñat Arruti antolatzaileekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Euskal Herri mailako topaketa nori zuzendua dago?

Ane Azkonobieta: Gu bezalako parranda zaletuei.

Beñat Arruti: Errezilen egin genuen trikiti afari batetik dator ideia. Hasieran Usurbil mailakoa antolatzea planteatzen genuen, gero animatzen hasi ginen eta...

A.A.: Antolatzeko beste afari bat egin eta eskualde mailakoak bai baina orain arte halakorik ez dela antolatu ikusita, Euskal Herri mailakoa izan behar zuela erabaki genuen.

Trikitilariorik biltzeko joera baduzue, ez bakarrik herrikoen artean, baita beste txokotakoekin ere. Zer harreman dago trikitilarion artean?

B.A.: Erromeria edo jaialdiak badaude horren inguruan otordu bat egiten da eta denok ibiltzen gara. Beti gertuko eskualdeetan izaten da. Azaroaren 16ko hitzorduarekin, eremua zabaltu eta jende berria ezagutu nahi genuke.

Trikiti zaletasunak batuko zaituzte.

A.A.: Trikitixa jo eta trikitiaz gozatzea da helburua.

B.A.: Egitarau irekia osatu dugu. Lehenetsun osoa eman go diogu trikitiari. Lehenbizi triki-kalejira eta gero bazkalostean giro ona bada, iluntzera arte edo goizaldera arte iraun dezake jai giroak, hor mugarik ez dugu jarriko. Jendearen giroaren edo parte hartzearen arabera izango da.



Ane Azkonobietak azaldu digunez, "trikitixa jo eta trikitiaz gozatzea da helburua".

BEÑAT ARRUTI

"Profesional edo hasi berri bat, denok batera elkartu gaitzke. Helburua gozatzea da, mahai ingurura trikiti zale denak daude gonbidatuak"

A.A.: Trikitia beti eskenatoki gainean edo kalejiran beti bes-teentzat jo ohi dugu. Plan hau guretzat da, trikitilariorik bildu eta giro politaz, trikitiaz goza-

tzeko, tentsiorik edo urdurita-sunik gabe.

B.A.: Trikitiaren ezagutza mailak ez du garrantzirik. Profesional bat eta zaletu hasi berri bat, denok mahai inguruan bildu gaitzke. Helburua gozatzea da, mahai ingurura trikiti zale denak daude gonbidatuak.

Nongo jendea espero duzue?

B.A.: Trikitizalea den oro. Arrakastatsua izan daiteke 10 lagunekin eta ez arrakastatsua 70 lagunekin. Kopurua gutxienezkoa da. Bospasei lagun, an-

tolatzen ari garenek behintzat bilduko garela ziur. Gehiago datozela? Primeran!

Bazkalaurretik plazan bilduko zarete kalejiran. Nola ikusten duzue trikitia plaza publikoan?

B.A.: Trikitiak hemendik kanpo protagonismo handiagoa duela ikusten da baina hemen errespetatua eta maitatua da baita.

A.A.: Edozein ospakizunetan denok dugu presente trikitia. Gure autoetan hortxe egoten da beti badaezpada.

"Trikiti zaletasuna bizirik dago"

NOAUA! Trikiti zaleentzako gonbita.

B.A.: Bazkari hau trikiti zaletuentzat da. Trikitizalea izanda eta gozatzeko gogoz dagoena ongi etorria izango da. Beste herrietan mugimendu hau bada. Trikitizale asko elkartzen dira, denok batera jotzen, polita izaten da. Gogotsu gaude. Ia zer moduz ateratzen den.

A.A.: Animatu!

Zaletasuna zaintzeko modu bat ere bada zuen ekimena?

B.A.: Gure atzetik datozenei zaletasuna transmititzeko ere. Trikiti zaletasuna bizirik dagoela ikusi eta jende gehiago ezagutzeko.

A.A.: Trikitia jotzen hasi berria bazara, talderik gabe egon edo kalejiretan asko ez bazara ateratzen, etxean jotzeko bakarrik izan beharrean bazkari honetan jo dezakezu. Motibagarriak dira halako ekimenak trikitia jotzen segitzeko. Elkartasun puntu hori bada hitzorduotan, elkar laguntze-

koa.

Euskal Herriko 1. Trikitixa Topaketa

Azaroak 16, larunbata.

■ 12:00 Trikipotea Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 14:00 Bazkaria Andatzpe elkartean.

■ Izen ematea: aurrez trikitixabazkaria@gmail.com helbidera idatzita, azaroaren 10a baino lehen. 16 urtetik gorakoentzat.

Prezioa: 25 euro.



Web orrialdean argazki gehiago topatuko dituzue, <https://noaua.eus/galeriak/> atalean. Argazkiak: Ion Markel Saez de Urabain.

ETB1eko “Herri Txiki” saiokoak Usurbilen izango dira hilaren 14an

Aginagan izan ziren duela urtebete. Euskal Herriko beste hainbat txoko zeharkatu ostean Usurbila dator orain Euskal Telebistako “Herri Txiki, Infernu Handi” saioko lan taldea. Egunotan kalean edota usurbildarren lekukotzak biltzen ariko dira Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak.

Astebete barru, ordura arte bildutako ahots eta irudiak ikusi eta aipatu saioko bi gidarien bakarrizketa saioez hornituriko grabazioa egingo da Oiardo kirolddegiko kirol anitzetako pistan.

Oiardo kiroldegian

Azaroaren 14an izango da iluntzeko 20:00etan hasita.



Iazko denboraldian Aginagan izan ziren. Argazkia orduko da. Aurtengoan Usurbilen osatu dute “Herri Txiki, infernu handi” saioko atal bat.

HERRI TXIKI, INFERNU HANDI

“Egunotan lekukotzak biltzen ariko dira. Emaizta azaroaren 14an erakutsiko dute Oiardo kiroldegian”

Bertaratzeko gonbidapenak eskuratu beharko dira aurrez.

Gonbidapenak eskuratu behar dira aldeztu aurretik

Azaroaren 6tik aurrera Oiardo kiroldegian lortu ahal izango dira (16 urtetik gorakoentzat). Herrian nahiz hilaren 14an kiroldegian eginiko grabazioa gerora ETB1ek igande gaueko 22:00etan eskaintzen duen saioan izango dugu ikusgai.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizun berriarekin datoz

Abenduaren 1ean 11:30ean Oiardo Kiroldegian, NOAAU! Kultur Elkartearen eskutik. Adi, sarrerak dagoeneko salgai ditugu. 2 urtetik gorakoentzat 7 eurotan aurrez Bordatxon, Lizardin eta NOAAU!n bertan eskuratu ahalgo dituzue. 2 urtera arteko haurtxoek sarrera doan izango dute. Ikuskizun egunean bertan 8 eurotan izango dira txartelak.

“Bizi dantza”

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, urtero moduan, haien ikuskizun berrienarekin etorriko dira Usurbila, “Bizi dantza” izenekoarekin. Informazio gehiagorako: kaxtiporreta.eus

50€ BELTZA
betikoa

60€ BERDEA
skologikoa

70€ ZURIA
beresia

Urtiaren 30etik

Nafar hegoaldeko uza euskarari puzka

azaroaren 10ra

AGER ALDIA

ESKATU SASKIAK ETA SUSTATU ELISKALGINTZA NAFARRA HEGALDEAN, SASKIEN BALIOEN 1/20 BIDERTATU DA. ZONALDEKO MASTOILEI, SORITZEN ETA AERRI LASINTZERA ETA, GAIHERA, AGER VASCONUM'EN EUSKARA PLAZARA ATERATZERA GATORREN EKIMEN BERRIA ARIAN JARTZERA.



Anerreka Ingurumen Elkartea


Urriaren 16an aurkeztu zuen Usurbilgo udalak UPC Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari eskatutako aire kalitatearen azterketa. Bertan aipatu zen Usurbilen hiru erakunde ari direla airearen kalitatea neurtzen. Horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz Biodonostia egiten ari den azterketa epidemiologikoaren barruan, airearen kalitatea ere ari dira neurtzen Udaregi ikastolan bertan, bere teilatuan kokatutako neurgailuarekin.

Biodonostiako txostenean jasotzen da ikastolan arnasten den aire kalitateak gainditu egiten dituela Munduko Osasun Erakundeak (MOE-OMS) gomendatzen duen urteroko batez besteko kutsadura-mugak. Zehazki, 2017ko irailetik 2019ko martxo arte PM_{2,5} kutsatzailak gainditu egin du Munduko Osasun Erakundeak ezarritako batezbesteko 10 µg/m³ muga. Ikusita 2019ko otsailaren 20, 21 eta 22an neurtutako baloreak 25 eta 32 µg/m³ izan zirela, datu are kezkarriagoak dira.

Hemen Biodonostiako txostena: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ingurumena/residuos-urbanos/infraestructuras>

PMak airean suspentsioan dauden partikulak dira eta jatorri asko izan ditzakete,

Udarregi Ikastolako aire kalitatea kezkarria



Irudia 1 Marra etena eta zutabeak Biodonostiak Udaregi ikastolan neurtutako PM_{2,5} balioak eta marra jarraia urteroko batez besteko Munduko Osasun Erakundeak ezarritako muga.

ANERREKA ELKARTEA

“Astero salatzen ari gara itxi gabeko UCINeko teilatutik, inongo tratamendu eta kontrolik gabe, ateratzen diren fundizio keak”

baina industria eta trafikoa dira nagusietakoak. Bereziki arriskutsuak dira alde batetik, hain txikiak izanda odolera iritsi daitezkeelako; bestetik, pisu txikiagoa edukita luzaroan iraun dezaketelako airean esekita; eta hirugarrenik, konposatu toxikoagoak izaten direlako. PMak arnas-aparatu gaixotasunen, gaitzardiobaskularren eta biriketako minbizien eragileak dira.

Biztanle-multzo sentikorre-

nek -haurrak, adinekoak eta arnas eta bihotzeko gaixotasunak dituzten pertsonak-kutsatzaile horren eragin negatiboak jasateko arrisku handiagoa dute, asma eta alergien handitzea eragin eta arnas aparatua kaltetzen dute.

Arazoari aurre egin beharrean, “lege barrenean” gaudela edo eta beste herri batzuk baino hobeto gaudela entzun izan dugu maiz. Mezu lasaigarriek errealitate latza ezkutatzeke funtzioa baino ez dute.

Guzti horren aurrean Anerreka Elkartetik uste dugu egoera larria dela eta denon artean hobetzeko ahaleginak egin behar direla lehenbailehen. Neurketa hauek, egoeraren berri emateaz gain, kutsadura zantzuak daudela esaten

digute, eta hori ekiditeko erabakiak hartzeko garaia dela erakutsi ere bai.

Honen harira, aspalditik eta askotan salatu dugu PM_{2,5} kutsatzailearen jatorri horietako bat UCIN enpresatik ateratzen diren kontrol gabeko keak direla. Astero salatzen ari gara itxi gabeko teilatutik, inongo tratamendu eta kontrolik gabe, ateratzen diren fundizio keak. Nahiz eta 2018an udalak emandako obra baimenean ezarri isurketa gune hori itxi behar zela, gaur egun aginduaren kontra, itxi gabe jarraitzen du. Anerreka Elkartek behin eta berriz salatzen du egoera hau, eguneroko ematen dena.

Egoera hau konpontzeko denon arteko kolaborazioa ezinbestekoa da, enpresa barne, baina orain arte ez du horretarako borondateirik erakutsi, udalak ezarritakoari jaramonik egin gabe jarraitzen baitu. Urriaren 16ko bileran udalak adierazi zuen UCINi eskaera luzatuta daukala, bere ke isuriak neurtu eta UPC Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari egiten ari den estudioa osatzeko; ikusi beharko da zein jarrera hartzen duen enpresak eta kolaboratzeko prest dagoen edo ez.

Hau dena jorratu eta informatzeko bilera irekia egingo da azaroaren 7an, osteguna, 18:00etan (Potxoenean).

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Berdinketa sukaldaritza txapelketan

Estreinakoz frontoian ospaturiko elkarten arteko sukaldaritza txapelketak giro goibela girotu, sabela poztu eta legatza saltsan prestatzen aritu ziren sukaldari onenak saritu zituen azaroaren lehenean.

2020an Gipuzkoa mailan ospatuko den lehiarako sailkapen proba gisa antolatu zen estreinakoz, Usurbil mailako sukaldari txapelketa. Plazan giza proba ospatu zen artean, frontoian legatza saltsan sukaldatzen aritu ziren.

Epaimahaiak bere lanak egin ostean, Gure Pakea eta Gure Elkartearen arteko berdinketarekin amaitu zen txapelketa. Eta sukaldatutakoa bajo janez, Lartzandietako Lumagarri oilasko erredun pintxoekin eta sagardo



2020an Gipuzkoa mailan ospatuko den lehiarako sailkapen proba gisa antolatu zen estreinakoz, Usurbil mailako sukaldari txapelketa.

dastaketarekin. Hemen duzue sailkapena:

1.- Gure Pakea Elkarte: Alfonso Palacios eta Vicente Lasa. 76 puntu.

2.- Gure Elkarte: Maria Jesus Agirre eta Maribi Arrospide. 76 puntu.

3.- Arrate Elkarte: Dioni Errasti eta Pilar Errasti. 65 puntu.

4.- Mahaspildegia Elkarte: Aingeru Orbegoza eta Antton Aizpurua. 50 puntu.

5.- Eguzki Elkarte: Ignacio Arruti eta Isidoro Otero. 48 puntu.



Sukaldatutakoa bajo janez, Lartzandietako Lumagarri oilasko pintxoekin eta sagardoarekin borobildu zuten eguna.

Leioa, giza probako garailea

Ez zituzten lehiarako baldintzarik onenak izan baina onena eman zuten Txorierri, Lasuen eta Leioa taldeek, Usurbil Herri Kirol Taldeak azaroaren lehenean antolaturiko giza proban. Euria gogotik ari zuela aritu ziren 1.800 kiloko "Ur-epel" harriari tiraka. Lasuen taldeak izan zuen zorte txarrean, eurite handiarekin egin behar izan zuten proba osoa. Ondoren, Txorierri hartu zuen lekukoa. Ateri egin zuten beren orduerdia. Azkenik, Leioa atera plazara eta denborarik onena egitea lortu zuen.

Sailkapena

■ 1-Leioa

Partaideak: Aitor de la Concepcion Kastrexana, Elizabeth Txertudi Sliman eta Eneko Bilbao Goiri. Botileroa: Angel Txertudi Lekerika. Emaizta: plaza 1, 10 zinta eta 2,07 metro.

■ 2-Txorierri


Partaideak: Gorka de la Concepcion Kastrexana, Iñigo Aurrekoetxea Landeta eta Alatzne Etxaburua. Botileroa: Igor Esnaola Dorronso-ro.

Emaiztak: plaza 1, 9 zinta eta 2,18 metro.

■ 3-Lasuen

Partaideak: Santi Zubizarreta Ikazuniaga, Gorane Ugarte Beitia eta Ioritz Pereira Romero. Botileroa: Mikel Alzola Lauzirika.

Emaiztak: plaza 1, 3 zinta eta 2,10 metro.



Euria gogotik ari zuela aritu ziren tiraka. Irudi gehiago noaua.eu/galeriak atalean topatuko dituzue.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako izen ematearen irekiera

Aurreko edizioetan urtarrilean bideratu izan dituzte inskripzioak, 2020ko urtarrilaren 26an ospatuko den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren antolakuntzak epe hau hilabete honetara aurreratzea erabaki du oraingoan. Jada zabalik da honenbestez inskripzioak bideratzeko tartea, kirolprobak.com atarian.

Mendiko bizikleta probaren bederatzigarren edizioan parte hartu nahi duten 16 urtetik gorako kirolariek proba egunera arte eman ahalko dute izena. Lau prezio ezberdin izango ditu probak:

- Federatu gabek: 22 euro.
- Federatuak: 20 euro.
- Federatuak izan eta culotte-a nahi dutenek: 95 euro.
- Federatu gabea izan eta culotte-a nahi dutenek: 97 euro.



Urtarrilaren 26an izango da baina izen ematea zabalik da kirolprobak.com atarian.

lotte-a nahi dutenek: 97 euro.

Lehen 500 partaideentzat, txalekoa opari

Urtarrilaren 26an, proba egunera ere izena eman ahalko da, 8:45ak baino lehen antolakuntzaren mahaian, 30 euroren truke. Antolakuntzak ohartarazi duenez, "14-16 urte arteko txirrindulariek proban parte hartzeko aukera izango dute baldin eta uneoro heldu baten ardurapean badaude.

Kasu hauetan, izena ematea irisasibt@gmail.com ko-reearen bidez beteko da".

Adi, izena ematen duten lehen 500 partaideei txaleko bat oparituko die antolakuntzak. "Gainera, neurria aukeratu ahal izango dute" azaroaren 24ra arte. Izena ematerakoan kontuan hartzea eskatzen dute honakoa:

1. Mailotaren neurria ondo biratu. Ez da aldatzeko aukerarik izango.
2. Kulotea eskatu nahi izanez gero, kontuan hartuko dugu gizonetako edo emakumezko gisa eman duzun izena eta horren arabera eskatuko zaizu modelo. Ez da aldatzeko aukerarik izango.
3. Mailotaren neurria eta kulotearena ezberdinak baldin badira, email bidez irisasibt@gmail.com helbidean jakinarazi.

Baztango itzuliaren 3. etaparako izen ematea azkenetan da

Azaroaren 17rako iragarri du hurrengo irteera Andatza Mendizaleen Kirol Klubak. Izen emate epea azken txanpan dute jada. Hemen xehetasunak:

- Eguna: azaroak 17, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 7:00etan Oiardo Kiroldegitik.
- Ibilbidea: Aldudes, Berderitz, Auza eta Izpegi lotuko dituen 14 kilometroko ibilbidea.

■ Izen ematea: azaroaren 13a baino lehen eman behar da. Horretarako 10 euroko ordainketa egin Andatzako kontu zenbakiotako batean: 3008 0259 1630 0543 0321 (Rural Kutxa) / 2095 5069 0710 6848 9805 (Kutxabank).

- Oharrak:
 - Plaza kopuru mugatua.
 - Ibilbidean zehar egingo den otordurako bazkaria norberak

eraman behar du.

-Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko mendiko federatua eta aseguru txartela indarrean izatea ezinbestekoa izango da. Nahi duenari tramitazioa mendi taldetik egingo zaio.

- Informazio gehiago:
 - andatza.com
 - andatza@hotmail.com
 - Antolatzailea: Andatza M.K.K.

Futbola Haranen

Azaroak 9, larunbata

- 9:30 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil F.T. A -Ostadar SKT B
- 11:00 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Añorga KKE

Azaroak 10, igandea

- 11:30 Futbol Eskola (2009): Usurbil-Beti Ona

Eskubaloia Oiardon

Azaroak 9, larunbata

- Eskola Kirola**
 - 10:30 Infantil neskak (Gipuzkoako Txapelketa): Udarregi B Usurbil -Bideosa Bidasoa Irun
 - 12:00 Infantil mutilak (Gipuzkoako Txapelketa): Udarregi A Usurbil -Urnietan Nam Restaurantes

Usurbil K.E.

- 16:45 Kadete mutilak (Gipuzkoako Txapelketa): Usurbil K.E.-Leizaran Imatel
- 18:30 Jubenil neskak (Gipuzkoako Txapelketa): Usurbil K.E. -Leizaran Lanbroa Taberna

Eskubaloiko enerrifa zozketa

Usurbil K.E.-ak berriki eginko errifa zozketak irabazleak badu. Marije arropa dendan xahutzeko 50 euroko saria irabazi du Ioritz Karrerak.



Ioritz Karrera, Marije arropa dendak emandako sariarekin.

Patxi
Patxi Mendizaleen Kirol Klubak
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatz 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu

Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe asegurueta, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratzen. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Arduratsua eta ama dena. Baita ere garbiketarako. 602568090 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo

umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta



Zorionak Liher!!

Zure urtebetetzea ospatzeko eguna iritsi da behingoz!! Muxu asko!



Urte askotarako, Ekhi!

Azaroaren 9an, 10 urte!! Muxutxo goxoak familikoan partez. Maite zaitugu.

Heriotzak

Joxe Mari Bengoetxea Etxeberria

86 urterekin hil zen urriaren 30ean Usurbilen



Joxe Zapirain San Sebastian

94 urterekin hil zen azaroaren 1ean Aginagan



esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketara lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta lanegilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketara, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin

persona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663

443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen,

umeak zaintzen edo garbiketara. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzateke.

637106649.

BESTELAKOAK

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrik jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitzke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 07 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Azaroak 07 - Azaroak 17

Osteguna 14 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda azaroa

08 ostirala

- **Hitzaldia:** "Usurbilgo autohornikuntza azterketa". 18:00etan Potxoenean. Hizlaria: Jesus Calvillo.
- **NOAUA!ren Kulturaldia:** "Orbel jauzia, dantza emanaldia". Orbeldi Dantza Taldearen eskutik. 19:30ean Sutegiko auditorioan.

09 larunbata

- **Jardunaldia:** "Tomas Zumalakarregi eta bere garaia". Egun osoan.
- **NOAUA!ren Kulturaldia:** kalejira eta bertso-bazkaria. 12:30ean kalejira Mikel Laboa plazatik. 14:30ean bazkaria Aitzagan.
- **Mundualdia.** 18:00etatik aurrera frontoian.

10 igandea

- **Espainiako Gorteak berritzeko hauteskundeak.**
- **NOAUA!ren Kulturaldia:** Izaki Gardenak taldearen kontzertua. 19:00etan Sutegin.

"Tomas Zumalakarregi eta bere garaia" jardunaldia Sutegin

Nafartarrak taldeak antolatuta azaroaren 9an larunbata, Sutegin:

- 9:00-9:30 Akreditazioak.
- 9:30-10:00 Sarrera: Joseba Tapia eta Idoia Arrieta.
- 10:00-10:45 Zumalakarregi, ezagutza, Dulantziko guda eta taktika militarra. Fernando Sánchez Aranaz (Erdaraz).
- 10:45-11:30 Zumalakarregi, ikurra eta izatea. Mikel Sorrauren (Erdaraz).
- 11:30-12:00 Atsedena.
- 12:00-12:45 Komunalak eta auzolana. Patxi Zabaleta.
- 12:45-13:30 Euskararen egoera XIX. mendean lehen erdian. Juantxo Madariaga.
- 14:00-16:00 Bazkaria.
- 16:00-16:15 Bideoa: Foruen deuseztatzeta. Xabier Irujo.
- 16:15-17:45 Mahai-ingurua: "Euskal populazioaren karlismoarekiko atxikimenduaren arrazoiak". Parte hartzaileak.



Larunbat honetan Sutegin, Nafartarrak taldeak antolatuta.

leak: Asisko Urmeneta (marrazkilaria eta idazlea), Mikel Alberdi (Ormaiztegiako Zumalakarregi Museoaren zuzendaria). Moderatzailea: Eneko Bidegain (irakaslea Mondragon Unibertsitatean). 17:45-18:00 Ondorioak eta itxiera: Idoia Arrieta (Historian Doktorea).
 ■ Izen ematea: 10 euro (bazkariarekin 30 euro).
 info@nabarralde.com
 aihert@gmail.com

Bilera, Anerreka Ingurumen Elkarteak deituta

Anerreka Ingurumen Elkarteak herriko lur, aire eta ur kalitatearen alde lan egiteko sortu zen. "Horien inguruan, zer pauso ematen ari garen jakinarazteko bilera irekia egingo dugu azaroaren 7an, osteguna, 18:00etan Potxoenean". Gai hauek

jorratuko dituzte bertan:

- Airearen kalitatearen datuen azterketa.
- Ucin: egindako lanak eta aurrera begirako proposamena.
- Azaroaren 7an osteguna, 18:00etan.
- Potxoenean.

Datozenak

Euskal Sagardoarekin afari maridatua Andatzpe elkarte

Euskal Sagardoa jatorri deituradun sagardo desberdinak ezagutu eta probatzeko aukera paregabea izango dugu azaroaren 12an Andatzpe elkarte. Erabiltzen diren sagar motak ezagutzera emango dira "eta sagardo desberdinek, momentu bakoitzean eta plater desberdinekin ematen duten jokoaz" gozatzeko aukera izango da.

Elkarte gastronomikoetako ardura-dun, ostalari eta herritarrei zuzendutako afaria izango da azaroaren 12koa. 20:30ean hasi eta 23:30ean bukatuko dela ohartarazi dute antolatzaileek.

Afari maridatua

- Azaroak 12 asteartea.
- 20:30ean Andatzpe elkarte.
- Sagardo aukera zabala, otorduko plater desberdinekin dastatzeko.
- Txartelak: aurrez salgai Bordatxon, Txirristran, Aitzagan eta Alkartasuna Kooperatiban.



Afariarako txartelak aurrez erosi behar dira.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ANTXETA

taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44



Otar-Goxo

Elkagariak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astesuan Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
USURBIL

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arozzgi.net jr.ibargoen@arozzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROZT-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39



Zinema maite
baduzu, Urbil
"zure etxea" da.



IRABAZI URTE BETEKO ZINEMARAKO SARRERAK!

Zozketa:

- 1º Jarraitu Instagram-en @urbil_cc
- 2º Zozketaren post-ean komentatu

Parte hartu 2020ko urtarrilaren 7ra arte.
Saria Cinesa Urbilerako 53 sarrera estandar
dira eta 2020/12/31 arte izango dira balioz-
koak. Irabazlea 2020/1/7an jakinaraziko da.



urbil.es